

Nobedadeak zergan

Jarraian aipatuko ditugu zergaren araudiak 2011an izan dituen aldaketa nagusiak, urte horretan eta 2010an onartutako xedapenetan jasota datozenak (5/2010 Foru Araua, 39/2010 Foru Dekretua, 5/2011 Foru Araua, 15/2011 Foru Dekretua).

Hauek dira xedapen horiek araudian sartu dituztenberrikuntza nagusiak:

Araudiari eta ikuskaritzari dagokion kontzertu barneko alderdi bat sartzen da, bakarbakarrik Euskal Autonomia Erkidegoan ari direlarik zerga helbidea lurralde historiko batean eta beren eragiketa bolumen guztia beste batean duten entitateen Sozietateen gaineko Zergari dagokionez. Balizko hau aurreikusita zegoen Kontzertu Ekonomikoan lurralde erkideari dagokionez; alabaina, kontzertu barnerako ez zegoen araututa. Horretarako, aldatu egingo dira foru arauaren 2. eta 132. bis artikulua.

Aparteko irabaziak berrinbertitzeko kautela bat onar-tzen da; honek eragotzi egiten du hori aplikatzea, salmenta eta ondoko berrinberti-tze eragiketak talde bereko entitateen artean gauza-tzen direnean. Horretarako, foru arauaren 22. artikulua 1. apartatua aldatzen da.

Urriaren 26ko 11/2009 Legeak onartutako Higiezin Merkatuan Inbertitzeko Sozietate Anonimo Kotizatuen (SOCIMI) zerga erregimena jaso-tzen da. Erregimen honen ezaugarria berekin dakarren tributazio eskema bikoitza da: Alde batetik SOCIMlen berezko jarduerarekin zerikusia duten errentak daude, hauek sozietatearen egoitzan tributatuko baitute, honek irabaziak bana-tzen dituenean soilik. Bestetik, SOCIMlen berezko jardueratik ez datozen errentek Zergaren erregimen orokorraren arabera tributatuko dute. Horretarako, foru arauaren X. tituluan kapitulu berri bat sar-tzen da, XVII.a zehazki. Gainera, erregimen hau onartzeak berekin dakar Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 10/2006 Foru Araua, abenduaren 29koa, eta Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko 2/1999 Fo-ru Araua, apirilaren 26koa, aldatzea, SOCIMletako bazkideen erregimena arautzera begira.

Hogeita seigarren Xedapen iragankorrean aipatzen diren esportazio jarduerak ez dute kenkarihonetarako eskubiderik emango 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan. Sozietateen gaineko zergaren erregimenduan sartutako neurri honen arabera ez da bidezkoa izango zerga horietan atxikipenik edo konturako sarrerarik egitea higiezin merkatuetan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuen araubide berezia aplikatzea aukeratu duten sozietateek banatu dituzten dibidenduen kasuetan (SOCIMI). Neurri hori dagoeneko jasota dago Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan, higiezin merkatuetan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuen araubide fiskal bereziaren erregulazioaren barruan.

Ustiapen ekonomiko kontzeptua argi-tzen da. Hori ez da aldaketa bat berez, tributuen ezarpenaren eskumeneko organoek egiten duten interpretazioa legera ekartzea baino ez baita, auzia argitze aldera.

Aldatu egiten dira sozietate nagusi eta mendeko sozietate kontzeptuak. Aldaketa hori eginda dago jada lurralde erkidean 2/2011 Errege Dekretu Legearen bidez. Ekonomia Itunaren 20.bi.1 artikuluari jarraikiz, kontzeptu horiek eta lurralde erkidean araututakoek berdinak izan behar dute.

Iruzzurraren aurkako neurri bat har-tzen da: Amortiza-tzeko askatasuna, amortizazio azkartua eta aparteko mozkinen berrinbertsiorako salbuespena aplikatzeko epea laburtu egiten da. Atxikitzeke obligazioa ezartzen da ekarpenak itzuliz kapital murrizpenak egiten direnean eta akzioen jaulkipen primak bana-tzen direnean, baldin eta eragiketa horien egileak Sozietateen gaineko Zergaren karga tasa orokorraren mendean ez dauden kapital aldakorreko inbertsio sozietateak badira.

Sozietateen gaineko Zergaren 7/1996 Foru Arauan eta ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretuan sartutako aldaketa horiek guztiak aplikaziozkoak zaizkie, era berean, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauari lotutako establezimendu iraunkorrei, baldin eta horien zergaldia 2010ko urtarrilaren 1etik eta abenduaren 31ra bitartean hasi bada.